






berde-berdea



OPORRALDI EKOLOGIKOAGOAK

IRAKASLEAREN
MATERIALA



gizarte ekintza

OPORRALDI! EKOLOGIKOAGOAK



berde-berdea

AURKIBIDEA

	Pag.
1.- Sarrera	3
2.- Turismoaren sorrera	3
2.1. Garraioa	3
2.2. Lehen abenturazaleak	3
2.3. Oporraldien hasiera. Bidaiatzeko plazera: gutxi batzuen esku zegoen.	3
2.4. Turismo modernoa	4
3.- Turismoaren masifikazioa	4
3.1. Turismoaren eragina ingurumenean	4
3.1.1. Naturan duen eragina	5
3.1.2. Kostaldeko turismoaren eragina	6
4.- Irtenbide bila	7
4.1. Turismo arduratsua helburu.	7
4.2. Zein neurri hartu dira dagoeneko?	8
4.3. Etorkizun jasangarriaren bidean	9
4.4. Beste turismo mota baten alde	9
5.- ETA ZER EGIN DEZAKEGU GUK?	11
6.- I. ERANSKINA	12

Informazio guztia:

www.begira.com-en



Egilea: Naturgaia. www.naturgaia.net
Irudiak: Dogma. www.studiologma.com

OPORRALDI! EKOLOGIKO AGONAK

1. SARRERA

Bizi garen herrialdetik atera eta kanpora jotzea, beste herrialde batzuk ezagutzera, ohikoa bihurtu da gure artean. Horrela, oporretan, Gabonetan, Aste Santuan... atera eta mendira, hondartzara, arbasoen jaioterrira, atzerriara... joaten gara.

Baina hori betidanik izan dela horrela iruditzen arren, usteak erdia ustel, oporrak izan eta kanpora irteera duela urte gutxiko kontua baita.

Azter dezagun, pittin bat, nola gertatu den hori, hau da, hasieran abenturazale batzuen kontua zen hori, gutxi batzuen esku zegoen hori, nola bilakatu den guztion edo gehienon ohitura. Izan ere, esan bezala, turismoa oso zabalduzik dagoen jardueraren da gaur egun.

2. TURISMOAREN SORRERA

Hainbat eragileren esker bihurtu da turismoa hain jardueraren arrakastatsua.

2.1. Garraioa

Garraiobideek izugarritzko bilakaera izan dute denbora gutxian. Duela 150 urte, belarantzietan bidaiatzen zuten; trenak orain mende bat sortu ziren; gero, poliki-poliki, autoak, hegazkinak... iritsi dira. Gaur egun, ibilbide luzeak egin litezke denbora gutxian eta eroso.

1829an, George Stephensonen lokomotora telegidatuak abiadura marka ezarri zuen Liverpool eta Manchesterren artean: 46,8 Km/h-ko batez besteko abiadura lortu zuen. Ia bi mende geroago, 175 urte, zehatzago esanda, Hendaia-tik Pariserako bidea egiten duen abiadura handiko trenak 400 Km/h-koa lortzen du.

"Spirit of St. Louis" hegazkinak Atlantikoa zeharkatu zuen 1927an. New Yorketik Pariserako dauden 5.810 Km-ak 33 ordu eta 29 minututan egin zituen. Hori bera egiteko, orain gutxi arte hegaldatzen zen Concordeak 4 ordu besterik ez zuen behar.

2.2. Lehen abenturazaleak

Gauza ezezagun eta berriak ezagutzeko grinak eta jakin-minak bultzatu zuten hainbat gizaki beste lurralde batzuetara, beren herrietan ez zutenaren bila:


- Antoine eta Arnaud D'Abadie Afrikan ibili ziren 1832tik 1844ra arte. Bitarte horretan, ikerketak egin, Etiopiako enperadoreari aholkuak eman, bertako hizkuntzak ikasi... eta beste hainbat gauza egin zituzten. Antoinen, gainera, etiopiar bat adoptatu, Hendaia-ko bere jauregira ekarri eta han izan zuen hil arte.
- Henry Stanley. 1871n, Afrikan barrena ibili zen Livingston doktorearen bila.
- Charles Darwinen, "Beagle" itsasontzian, munduari itzulia eman zion 1831tik 1836ra. Galapagoak irletatik igarotzeak espezieen jatorriari buruzko teoria biziki garrantzitsua lantzeko aukera eman zion; Eboluzioaren teoria.



2.3. Oporraldien hasiera. Bidaiatzeko plazera:



gutxi batzuen esku zegoen



XIX. mende hasieran, Ingalaterrako gazte aristokratek Italiara, Greziara... bidaiatzen zuten, hezi, ikasi, dibertitu eta atsedean hartzeko. Horien artean izan zituen jomugan Julio Vernek "Munduaren itzulua 80 egunetan" nobela osuetsua idatzi zuenean, Willy Fogg protagonista duen hori.

Garai horretantxe, XIX. mende erdialdean, hasi ziren Espainiako monarkia eta horren inguruko aristokrata, diplomatiko, aberats... Donostiara etortzen, itsasoaz gozatu eta atseden hartzeko.

Donostiako merkatariek berehala antzeman zieten horrek ekar zitzakeen diru irabaziei, eta Udolari presio egin zioten hiria ren ekipamendua hobetu nahi zutenei beharrezko laguntza eman diezaien. Horrela, astiro-astiro, egin ziren "Kasino Nagusia" -1887an jaso, egun Udaletxearen egoitza nagusia da--, Maria Cristina hotela eta Victoria Eugenia antzokia (biak 1912an) eta, apur bat geroago, Kursaal Kasinoa (1922an eraiki zen, jende ahaltsu eta aberatsenak hara joan zitezen, jende arruntagoak betetzen zuen beste hartatik urrun).

XIX. mende bukaeratik 1920. urte arteko garai horri guztia ri Belle Epoque esaten zaio.

Europar ere antzeko zerbait gertatu zen. Miarritzek edo Frantziako Pirinioek errege, enperadore eta artista ugari ren bisita jaso zuten.


2.4. Turismo modernoa

1936an, Frantzia n, gobernu ezkertiar batek 40 orduko lan astea eta opor ordainduak ezarri zituen langileentzat.

Gurera, nolana hi ere, askoz beranduago iritsi ziren abantaila horiek, gure aitona amonek, esaterako, ez baitzuten halakorik izan.

Oinarrizko beharrak ziurtatu eta bermatu ondoren, soilik, hasi ziren baliabideak sortzen oporrak gozatu ahal izateko.

3. TURISMOAREN MASIFIKAZIOA



Turismoa gehienon esku dago mende baldeko gizarteetan. Turismoaren Mundu Erakundeak dioenez, 673 milioi turista joan ziren atzerrira 2002an.

Jarduera horren eragina askotarikoa da: beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen du, ondasun kultural eta naturalari eusten laguntzen du, azpiegiturak bultzatzen ditu..., eta horrek guztiak irabazi ekonomiko eta sozialak ekartzen ditu.

Garapen bidean diren 49 herrialde tan - Afrikakoak eta Asiakoak - gehienak-turismoa da bigarren diru iturri nagusia.

Turismoa hainbat arrazoi rengatik masifikatu da:

1. Askok eta askok leku jakin batzuetara jotzen dute.

Mediterranean, 1970-1990 artean, hirukoiztu egin da turista kopurua: 54 milioi it 157ra igaro da.

Balea r Irlek, 800.000 bizilagun badituzte ere, 10,2 milioi turista izan zituzten 2002an.

Paris da munduko hiririk bisitatuena: 77 milioi pertsonak bisitatzen dute urtero.


2. Garai bertsuan bidaiatzen dute guztiek.

Alpeetara 100 milioi pertsonak jotzen du urtero: %30ek oporraldietan egiten du, eta %60k, asteburuetan.

3. Mende baldeko gizarteko bizilagunen eros ahalmena dezentea da, eta oporrak igarotzeko leku askotarako prezioak nahiko merkeak dira.

3.1. Turismoaren eragina ingurumenean

Ukaezina da aipagai dugun turismoaren eragina ingurumenean. Azter dezagun patxadatsuago.



3.1.1. *Naturan duen eragina*

Landa lurretako turismoaren eragina –mendiaren ingurukoa, batik bat— nabarmena da naturan. Bidaia-irak, izan ere, mendetan zehar oso aldaketa gutxi izan eta ikaragarriko aberastasuna –nola landaredian, hala animalia kopuru eta aniztasunean– gorde duten ekosistema naturaletan sar daitezke.

Nekazari edo baserri giroko herrien ondare kulturealean duen eragina ere bistakoa da, aldaketa ugari sorrarazten ari baita.

Hauek dira ondorioetarako batzuk:

- **Kontrolik gabeko urbanizazioa landa eta mendi inguruneetan:** errepideak, aparkalekuak, hotelak, eski estazioak... Horrek zuzenki eragiten die landare eta animalien bizilekuei, eta baita turismoaren jomuga nagusia den paisaiari berari bere:

ADENAK ondorengoa dio Teruelgo Gudar mendikateko Valdelinaresko eski pistetan hasiriko lanak direla eta: "Eski pistak zabaltzeko helburuarekin egiten ari diren azpiegitura lanen eraginez egiten diren baso mozketek arrisku bizian jar lezakete ondoen mantenduriko pinu beltz pinudietako bat".

Habitata kaltetzeak desagertzeko zorian jartzen ditu zenbait espezie, eper zuria, kasurako.

Eper hau goi Pirinioetan bizi da, 2000 metrotik gora, Larrako mazizotik Gironaraino. Kuaternarioko glaziazioetan iritsi zen penintsulara, eta Pirinioetan geratu zen bakartua hotza eta izotza apaltzean.

Pirinio osoan 48-62 bikote inguru direla uste da, gutxiago urtetik urtera. Nafarroan 4 atzeman dituzte. Gutxitzeko arrazoiak artean, hauek nabarmentzen dira: tenperaturaren igoera, elurraren gutxitzea, legeak kanpoko ehiza eta, bereziki, turismoa eta eski estazioen eragina.

Baso mozketek, errepidegintzak, etab.ek ezusteko ondorioak ekartzen dituzte.

Austriako Alpeetan eginiko ikerketa batek erakutsi zuenez, 1983an han gertaturiko elurrolde ugarien arrazoi nagusia baso mozketek eta lur mugimenduek eragindako higadura eta lur solitzua izan ziren. Lan horiek 1980ko Neguko Olinpiar Jokoetarako eski pistak zabaltzea eta handitzea zuten helburu.

- Trafikoaren handitzea:

Gero eta errepide, auto... gehiago dago. Gehiago gara, eta urrunago iristen gara. Hondakin gehiago, beraz, eta baita suteak maizago ere.

- Landako eta mendiko bizimoduak loturiko ohitura, bizitzeko era eta kulturearen indargaltzea.

- Hondakin gehiago, eta urrunago.

Maiz uzten dira hondakinak oso leku urrunetan, toki horiek denbora luzearako itsustu eta kutsatuz. Eta hori ez da gure mendietan bakarrik gertatzen, baita beste askotan ere:


- Everestera antolatutako espedizioak gehiago dira urterik urte, eta sortzen duten hondakin kopurua hain da handia, ekimen bereziak bultzatu behar izan dituzte, 1990tik aurrera, pittin bat garbitzeko.

- Mendialdeko leku turistikoetan sorturiko hondakinak 9 aldiz handiagoak dira landa lurretako herrixketakoak baino.

Azkenik, bada gogoratu beharreko beste gauza bat: mendian utzitako beirakiak sute askoren sortzaile dira, eta, beraz, arreta handiz erabili behar dira.



Eper zuria.
Iturria: Fauna Ibérica.



ALBISTEA: "Iritsi da turismoa Antartidara"

Antartida jomuga duen turismoa goraka doa etengabe. 1980an, 1.000-2.000 pertsona inguru izan ziren; 2003an, berriz, 20.000. Eta lekurik bisitatuena animalien bizileku nagusi diren izotz guneak dira: pingüino, itsas txakur, itsas ugaztunen bizitokiak.

Gehienetan, turismo hori luxuzkoa da, astebeteko egonaldia truke 6.000 eurotik gora ordaindu behar baita.


ANTARTIDAKO TURISMOA: ARAUTU BEHARREKO TURISMOA

Egoera hori ikusirik, munduko ekologia talde askoren bilgune den elkarte batek, Antartida eta Ozeano Australerako Elkarreke, hain zuzen ere, dei berezia egin du turismo hori arautzeko.

3.1.2. Kostaldeko turismoaren eragina

Klima egokiari eta hondartzei esker, milioika europarrek kostaldera jotzen dute oporrak igarotzera, eta azken urteotan izugarritzko indarra hartu du.

Mediterraneora 220 milioi turista joaten da urtero, eta 350 milioira iristea espero da hogeitazko epean.



Turismo horrek, baina, eragin kaltegarria du mediterranear kostalde eta itsasoan, alderdi hauei dagokienez, bereziki: lur gehiago erabiltzen da; ur eta energia gastua handitzen da; paisaiak suntsitzen dira; hondakinak emendatzen dira eta aniztasun kulturala eta balio tradizionalak galbidean jartzen dira.

- Begiz antzematen den inpaktua: Paisaia aldatzen du.

Eraikin asko egiteak, azpiegiturek, etab.ek leku eder askoren itsustea eta galbidea dakar. Kutsadura estetikoa deritzo horri, eta asko dira hori dela kausa urruntzen hasiak diren turistak.

- Ekosistema naturalak galbidean jartzen ditu:

Begiz atzematea zaila bada ere, kostaldea bizitzaz beterik dago. Lurrak eta urak, euren korrante, olatu eta itsasaldien bidez, hondartzak eta itsas hondoa sortu dituzte prozesu motel baina etengabe.

Habitat horretan ekosistema oso bat dago, bere landaredi eta fauna propioa duena. Eta halako batean egiten den itsas paseoa, edo lehorrarazten den padurak, edota txikitzen den hondartzak habitat horren galera dakar espezie askorentzat.

Hondartzaren funtzionamendua:

Hondartzak urtean zehar aldatuz doazen gune naturalak dira. Bere ezaugarrietariko bat da olatuei aurre egiteko balio dutela. Honela gertatzen da:

Udan, itsasoa bare dagoela, harea pilatzen du alde lehorrean (eguzkitan egoten garen lekua) eta dunetan. Negu eta udazkenean, berriz, eguraldia txartu eta itsasoa biziagotu egiten da, eta, orduan, aurrez pilatutako harea itsas hondora eramaten du. Han metatu eta hondartza babesten duen harresi naturala sortzen du. Zikloa amaitzeko, udaberriak baretasuna dakar, eta itsas hondoko harea hondartzako alde lehorretara eta dunetara itzultzen da berriro.

Gauzak horrela, dunen gainean eraikinak edo itsas paseoak eraikitzen baditugu, hondartzek duten hare iturri bakarra oztopatzen dugu, eta desagertzeko zorian jarri. Izan ere, eraikin horiek oztupo dira itsasoko harea hondartzara iristeko; alitiuk, olatuek bere lanean jarraitzen dute, eta harea itsasora eramaten, harik eta, denboraren poderioz, hondartza bera desagertzen den arte.

- Ur zikinaren eta hondakin solidoen kopurua handitzen du: Kostaldeko leku askotan ez dute araztegiarik. Beste batzuetan, berriz, herritarren beharrek eraikitakoen ahalmena gainditzen dute.

Esaterako, Las Palmasen, Kanariar Irlak, sorturiko ur zikinaren erdia (%50) zuzenean isurtzen dute itsasora, batere garbitu gabe.

Eta ez da hori egiten duen leku bakarra, Espainian, gaur egun, 205 gunetan egiten baitute gauza bera.

Udan, bestalde, ohikoa da herri askotako populazioa neurrigabe handitzea, eta horrek larritu egiten du egoera, zaborra deuseztatzeko lana zaildu egiten baitu.

2002ko ekainaren 15etik abuztuaren 30era, 707 metro kubiko hondakin bildu zen Kataluniako hondartzetan (plastikoa, egurra, hondakin organikoa, koipeak, landare hondakina, hondakin solidoa, etab.)

- Ur baliabideen kontsumoa gehitzen da:

Mediterraneoa bezalako lekuetan nabarmena da ur eskasia urte osoan zehar, eta nabarmenago, udan.

1960tik 1985era, 2 milioi metro kubiko ur gastatzetik 15 milioi gastatzera igaro dira Balear Irletan (Mallorka).

Espainiar batek, batez beste, 147 litro ur gastatzen ditu eguneko; luxuzko hoteletan, aldiz, 880 litro gastatzera iristen dira pertsonako eta eguneko.

Andaluziako golf zelai batek 15.000 metro kubiko ur behar du hektareako eta urteko; aldiz, Almeriako nekazaritzak, lurralde horretako sektore ekonomiko garrantzitsuenaren izan arren, 6.000 behar ditu.

Garbi dago, beraz, zein neurritakoa den turismoaren eragina eta, ondorioz, zein premiazkoa den irtenbideak jartzten hastea.

4. IRTENBIDE BILA

Luzaro pentsatu izan da turismoak ez zuela inolako eragin txarrik, "industria garbia" zela.

Hala ere, 80ko hamarkadan agertu ziren lehen kritikak,



eta gaur egun denek onartzen dute turismo arduragabeak kalte handia eragin diezaiokeela ingurumenari, batez ere, mendi eta kostaldeko leku turistikoenetan. Premiazko dirudi kalte hau, luze gabe, zuzentzea.

Gauzak honela, planifikazioa, ingurumenarekiko begirunea... behar-beharrezko bihurtu dira turismo jasangarriaren bidean.

4.1. Turismo arduratsua helburu

1992an, Rio de Janeiron eginiko Lurraren gailurrean, nazioarteko hiru erakundek –World Travel and Tourism Council, OMT eta Lurraren Kontseilua—agiri bat adostu zuten, "Turismo jarduerarako 21 agenda" deritzana. Horrek aipatzen ditu turismo industriak eta gobernuak, eman beharreko urratsak, honakook, adibidez:

- Ekosistema ahulenak eta aberatsenak zorrotz babestea.
- Egiteko asmoa den horren eragin askotarikoa ebaluatzea –ingurumenari, gizarteari, ekonomiarri edo kulturari eragingo diona- lanari ekin aurretik.
- Turismoa arduraz bultzatzea, lekuan lekuko berezitasunak, nola naturalak hala kulturalak, zainduz.
- Lekuan lekuko komunitateari aukera ematea planifikatu eta erabakiak hartzeko tenorean.
- Lekuan lekuko baliabideak zentzuz eta era iraunkorrean erabiliko direla bermatzea, zarrastelkeria eta gehiegikeriak baztertuz.



- Turistaren eta lekuko bizilagunaren atsegina jomuga izatea.
- Turismoak eragindako irabaziak bertako bizilagunen ongizatean isla izango duela bermatzea.

4.2. Zein neurri hartu dira dagoeneko?

Turismo "berri" horren helburu nagusiak hiru izan dira orain artean:


- Masifikaturiko lekuak hobetzea, ahal den neurrian.
- Gertaturikoa berriro gerta ez dadin neurriak hartzea.
- Beste turismo mota baten alde egitea.

4.2.1. Masifikaturiko lekuetan hobetsitako irtenbideak

4.2.1.1. Azpiegiturak

Kaltea egina dagoen arren, kostaldeko leku batzuetan gogor ari dira ahalegintzen azpiegituren eragina txikiagoa izan dadin:

Calvia-ko (Mallorka) esperientzia:



Orain gutxi arte, hondartza eta eguzki turismoaren "eredu" zen Calvia: neurrigabeko etxegintza, zeharo desegokia, baliabide naturalen gehiegizko ustiapena... Azken urteotan, ordea, Udala ahalegin serioa ari da egiten turismoak ingurumenean duen eragina ahalik eta txikiena izateko. Horretarako, hondartzan bertan zeuden hotel eta eraikinak eraitsi eta orubeak erosi ditu berdeguneak handitzeko, hondartzaguneak berreskuratzeko, edota itsas pasealekuak egiteko.

4.2.1.2. Natur baliabideen erabilera iraunkorra

- Ura

Europako Ekonomia Elkarren gomendioz (EEE), ur araztegiak jarri behar izan dira. Horieta trataturiko ura ez da edateko ona, baina balio du lorategi, golf zelai, parke "temático", etab. etarako, eta ez da ahaztu behar erruz xahutzen dela ura horietan guztietan.

Esandakoaren erakusgarri, Port Aventurako parkea: lorategiak ureztatzeko, Vilasecan (Salou) birziklaturiko ura erabiltzen dute.

4.2.2. Ekologiazale izatea, hotelen onerako

Bidaia agentzien eskaintzetan, jomuga turistikoaren ingurumen kalitateari buruzko xehetasunak ematen hasi dira. Izan ere, hotelak eta gisako turismo zerbitzuak ondotxo ohartu dira ingurumena aintzat hartzeak abantailak dakarziela hori egiten ez dutenen aldean.

Hona bi adibide:

Grezia: ekimenok abiarazi dituzte:

- Bizikletak uzten dizkiete bezeroei arkeologiaguneak bisitatzeko.
- Eskuoihalen erabileran aldatetako sustatu dituzte. Ohikoa zenaren ordez -eskuoihala egunero aldatzea--, tarte hori luzatzeko proposamena egin zieten bezeroei, horrela, ura eta energia aurrez zitezen; bezeroek, trukean, %5eko beherapena izango zuten ordaintzeko uneen. Proposamenak erabateko arrakasta izan du, eta, harrezkero, bi egunean behin aldatzen dituzte eskuoihalak.

Donostia:

- Hotelak ahalegintzen ari dira turistek garraio publikoa eta bizikletak erabil ditzaten.
- Birziklapena bultzatzeko eta energia aurrezteko neurriak hartzen ari dira.
- Ingurumenaren alde diharduten hotelek etiketa edo ikur berezi baten jabe izango dira.

4.3. Etorkizun jasangarriaren bidean

Ikusiak ikusita, hainbat neurri bultzatzen ari dira ingurumen arazo larririk sor ez dadin, azpiegitura edo etxegintza dela kausa, leku gehiagotan.

4.3.1. Interes bereziko guneak babesten dira

Batez ere, dunak, hezegune eta padurak, basoak, etab.

Hona hemen Naturaren Iraupenerako Nazioarteko Kategoria batzuk:

I. Natur erreserba osoa: babesturiko gunea, helburua natura zaintzea edo zientzia ikerketa duena.

II. Parke nazionala: ekosistemak zaintzea eta aisialdia bideratzea du helburu.

III. Biosferaren Erreserba: funtsezko garrantzia du naturaren zainketa eta giza jarduera bateragarri bihurtzeak, bien integrazioa lortzeak. Adibidez: Urdaibaikoa, Doñanakoa...

IV. Parke naturala: kategoriarik antzinakoena. Adibidez: Aralarkoa, Aiako Harrietakoa...

Urdaibaiko biosferaren erreserba:

1984an izendatu zuen UNESCOk. eta euskal kostaldean ondoen gordetako hezegunea da. Eredugarria da hainbat ekosistema bildu, zaindu eta berreskuratu dituelako, inguruko bizilagunen gogoak bultzatuta, horientzat duen interes askotarikoagatik: naturala, zientifikoa, hezitzailea, ekonomiko - soziala...

4.3.2. Naturguneetan turista eta ibilgailuen sarrera kontrolatu

Turista askoren ohitura bihurtu da, ahal den toki guztietara, autoekin joatea, oinez joan beharrean. Honen ondorio nabarmenena, nahiz mendi nahiz kostako zonalde zehatz batzuetan, jende andana itzelak pilotzea da. Honelakoak ekiditearren zenbait neurri hartzen hasiak dira hainbat tokitan.

Ordosako parke naturalean (Huesca), debekaturik dago autoen zirkulazioa ekainetik irallera. Trukean, autobusak jartzen dira Torlatik, eta horri esker bisitari kopurua kontrolatu ahal dute.

4.3.3. Naturarekin bat datozen eraikuntzak


Turismo arduratsuaren helburu izango dira honako hauek: hirigintza naturan txertatuago egotea, eraikin txikiago eta hobeto egokituak egitea, energia berriztagarrien erabilera bultzatzea, energiaren aprobetxamendu hobetzea, bertakoan edo herritarren iradokizunak kontutan hartzea...

4.4. Beste turismo mota baten alde

Azken urteotan, beste turismo mota bat sortzen ari da, naturari lotuago eta ingurumena zaintzearen aldekoago.

4.4.1. Ekoturismoa

Aldaketa gutxi nozitutako lurraldeak bisitatzea du helburu, naturaz gozatu eta hura babesteko. Horretarako, lorturiko diru sarrerak natura zaintzera eta bertako bizilagunen bizimodua hobetzera bideratzen dira.



Hona adibide bat:

Mazunteko herria eta bere historia:

Hona nire herria, Mazunte. Karramarro bati zor dio izena, urdin-gorria, garai batean oso ugaria gure hondartzetan. Gaur egun ere, oraindik, isilka-misilka ibiliz gero, hondartzara iristen den erreka-stoan ikus daiteke.

Karramarroez gain, dortoka saldo ikusgarria iristen gara hondartzetara geure arrautzak errutera. Eta hori ikusirik, gu atzematera etorri zen, duela hogeita hamar urte inguru, enpresaburu bat, eta haren atzetik, beste hainbat. Hemen, bizitzeko leku zoragarriaz gain, lan iturri oparoa aurkitu zuten, eta horrela sortu zen Mazunteko herria.

1990ko maiatzaren 31n, ordea, dortokan hil edo biziko egoerak eraginda, eta baita talde ekologisten presioarengatik ere, itsas dortokak ehizatzea debekatu zuten Mexikon. Harrezkero, talde ekologista askoren laguntzarekin, beste diru iturri batzuk bilatu behar izan dituzte Mazunteko bizilagunek, ingurumenari kalte egin gabe bizitzeko.


Era honetan, Mazunte LANDA ERRESERBA EKOLOGIKOA bihurtu da, herriak garatzen jarrai zezan ballabide naturalak kaltetu gabe.

Horretarako, proiektu berezi bat landu da, lekuaz gozatzeko aukeraz gain hura zaintzeko eta babesteko abagunea ematen duena. Izan ere, argi dago jendeak natura maite duela, eta izugarri gozatzen duela dortokak arrautzak erruten ikusiz, eta baita jaioberriei itsasora heltzen laguntzen ere.

Argi dago natura zaintzea eta aurrerapena bateragarriak direla. Mazunteko bizilagunak etxe eta ortuak ostatu bihurtu, plaza eder bat egin eta bideak zuhaitzez eta landarez hornitzen ari dira.

Eta herri izaera eta kutsu hori gorde nahi ditugu, bisitariak ikus eta ikas dezaten zer den oporraldi ekologikoa.

Hain urrun jo gabe, badugu geure inguruan ere horrelako turismoaz gozatzeko modurik.



Ekoturista
Mazuntan.


4.4.2. Natur eta kirol turismoa: bide berdeak


Garai bateko trenbideak, gaur egun erabili gabeak, ibiltari eta zikloturisten ibilbide bihurtu dira. Hona hemen horietako batzuk:

- Gipuzkoako bide berdeak: Plazaolako: Leitzaran haranean, Andoain eta Lekunberri artean (40 km). Bidasoako: Endarlatsatik Doneztebera (30 km). Gipuzkoako Aldundiaren asmoen arabera, 310 km-tik gora izango ditugu laster Gipuzkoan barrena.
- Espainian, 1.500 k-tik gora dira.
- Europan, berriz, milaka eta milaka km dira. Posible da bide horietan barrena estatu eta herrialde ugari zeharkatzea.

4.4.3. Nekazaritza turismoa

Turismo mota honetan, oporrak eta jarduera ekonomiko batek --nekazaritzak edo abeltzaintzak-- bat egiten dute balio handiko ingurune batean. Hala, baserri, etxalde, etab. etan ostatu hartuz, ingurua ezagutu eta bertakoen ekonomia hobetzen dugu.





Alderdi askotatik –ekologia, ekonomia, kultura, etab.etik-- hain garrantzitsua bihurtu den turismo mota honi Nafarroako eta Gipuzkoako baserritar batzuk eman zioten hasiera.


5. Eta zer egin dezakegu guk?


Denok dugu zer egina eta zer lagundua turismo arduratsuago, ekologikoago eta iraunkorrago baten alde. Edonora joaten garela ere –mendi, hondartza, parke natural, hiri,...--, saia gaitzek ingurumena zaintzen. Nola?

Jarraian, aholku xume baina baliagarriak emango ditugu hori lortzeko, bai eguneroko jardunean, bai oporraldietan. Denok baitugu zertan lagundu.

5.1. Aholku zenbait oporraldi ekologikoagoak igarotzeko

- Edonora abiatu aurretik, jaso dezagun ahalik eta informazio gehien bisitatu nahi duzun horri buruz: ezaugarriak, kultura, historia, hizkuntza, natura... Horrela, gehiago gozatuko dugu leku eta bizilagunekin.
- Jakin dezagun zein hotel, ostatu, kanpin, etab.ek egiten duen, nola edo hala, ingurumenaren alde: ura eta energia tentuz gastatuz, hondakinak birziklatuz...
- Neurtu dezagun ur eta energia kontsumoa:
- Dutzatu, bainatu ordez.
- Ez ditzagun iturriak alferrik irekita eduki.
- Itzal ditzagun telebista, irratia, argiak, ordenagailua... behar ez badira (gogoan izan etenda baina itzali gabe dauden etxetresnak argindarra gastatzen dutela).
- Gutxitu ditzagun hondakinak (adibidez, bertako gaiak erosit kanpokoan ordez, horrela garraioak sortzen dituenak alboratzen baitira); bererrerabil dezagun ahal den guztia; eta, birzikla dezagun gainerakoa.
- Garbi joka dezagun ingurumenarekin: kanpora edo hondartzara bagoaz, utz dezagun guztia garbi. Ez dadila natura zabortegi bihurtu!
- Ez erabili motorik mendian: kutsatu, landaredia kaltetu, higitu eta ibiltariak eta animaliak molestatzeko dituzte. Gauza bertsua esan liteke uretako motoiei buruz ere.
- Gabiltza oinez! Zertarako bizi autoen menpe? Goazen oinez edo bizikletaz! Bestela, berriz, erabil dezagun garraio publikoa.
- Mendira goazenean, utz dezagun autoa adierazitako aparkalekuetan; errespeta ditzagun markaturiko ibilbideak, eta ez dezagun egin behar baino zarata handiagorik. Landare eta animaliek biziki eskertuko dute.





6. I. Eranskina

BIBLIOGRAFÍA:

- Pérez de las Heras, M. *La guía del Ecoturismo*. Ediciones Mundi-Prensa, 2003.
- OMT. *Desarrollo sostenible del Ecoturismo. Una compilación de buenas prácticas*. Madrid, Organización Mundial del Turismo, 2001.
- Agencia Europea de Medio Ambiente. *Medio Ambiente en Europa; El Informe Dobris*, Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas y Ministerio de Medio Ambiente, España, 1998.
- Fundació TERRA. *Perspectiva Ambiental 26, Ecoturisme*, Associació de Mestres Rosa Sensat, 2002.
- Huxley, J & Kettlewel, H.D.B. *Darwin*. Salvat Editores, 1984.

INTERNETEKO WEB GUNETAN AURKITU DAITEZKEEN AGIRIAK:

- "Perspectiva Ambiental 26, Ecoturismo". <http://www.ecoterra.org>
- Greenpeace, España. "Campaña Costas" http://www.greenpeace.org/espana_es/campaigns/intro?campaign_id=135623
- Ciudades para un futuro más sostenible <http://habitat.aq.upm.es/dubai/02/lista.html>
- Programa de las ONG del Mediterráneo para un desarrollo sostenible http://www.medforum.org/documents/agenda2000/a2000_es.htm
- Foro para el Turismo Sostenible. <http://www.turisos.net/index.html>
- Agencias de Viajes Españolas. Productos y Servicios Turísticos en relación al Medio Ambiente. <http://www.aedave.es>
- IHITZA, "Escuela ekologikoa eraikitzen". Ingurumen aldizkaria, paperean eta formatu digitallean, CEIDAK argitaratutakoa (Eusko Jaurlaritza):
- Aukeraturako orrialdean rol jolasa proposatzen da: "Humatika Handia Makundun uhartearen aurka", garapen turistikoaren inguruan ikuspuntu desberdinak plazaratzeko http://www.euskadi.net/ihitza/ihitza12/pajaro_c.htm.

BALIABIDEAK:

- Urdaibaiko Biosferaren erretserba. <http://www.urdaibai.org/>
- Espainiako bide-berdeen gida. <http://www.viasverdes.com/>
- Euskal Nekazaritza eta Landetxeen gida. <http://www.nekatur.net/>
- Ekoturismo eta Landetxe turismorako lekurik interesgarrienak. <http://www.ecoturismo.com/>
- Espainiako Parke Naturalak. <http://www.parquesnaturales.com>.